

# Atxubieta

## UDAL BERRIAK

Azaroa  
2010  
Zk. 111



LEMOA  
UDALA

Azaroak 12 Barikua

### “BERBALAGUN” EUSKARA PRAKTIKATZEKO TALDEA: “Arratiako Berbalagune” proiektuaren aurkezpena Areatzan

Informazio gehiago: 94 631 25 51 / euskara@lemoa.net (Alberto)

Azaroak 14 Domeka

### NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN AZOKA

- Tokia: Elizondo Auzoa (futbol zelaiaren ondoan)
- Ordutegia: 10:00 - 15:00
- Oharra: eskulanen ikastaroaren erakusketa ere izango da

Azaroak 15 Astelehena

### HAURRENTZAKO V. GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALIK

- Hauexek dira baldintzak: Lemoan bizi edo ikastea eta 12 urte baino gutxiago izatea
- Marrazkiak abenduaren 10era arte entregatu ahal izango dira ludotekan 16:30etatik 19:30era
- Marrazkiaren gaia libre izango da eta Gabonei buruzkoa izango da
- Lehiaketa honetan parte hartuko dutenei diploma bana emango zaie
- Lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak Udaleko web orrialdean argitaratuko dira
- Sari banaketa abenduaren 16an izango da ludotekan arratsaldeko 18:00etan
- Oharra: zozketan sarituta ateratzen den pertsona ludotekan bertan ez badago, beste izen bat aterako da



Azaroak 15 Astelehena

## LEMOAKO HAUR ETA GAZTEEN X. IPUIN LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALIK

- Hauexek dira baldintzak: Lemoan bizi edo ikastea eta 18 urte baino gutxiago izatea
- Ipuinak 2011ko urtarrilaren 28ra arte entregatu ahal izango dira liburutegian 16:30etatik 19:30era
- Lehiaketa honetan parte hartuko dutenei diploma bana emango zaie
- Saritutako ipuinak liburu batean eta Udaleko web orrialdean argitaratuko dira
- Informazio gehiago: liburutegian edo eskolan

LEMOAKO  
HAUR ETA GAZTEEN  
X. IPUIN LEHIAKETA  
X CONCURSO  
INFANTIL Y JUVENIL  
DE CUENTOS DE LEMOA



Azaroak 17 Eguaztena

## “OLENTZERO” BATZARRA

- Tokia: Udaletxea
- Ordua: 19:30

Azaroak 27 Zapatua

## MENDI IBILBIDEA: mendira joateko teknika egokiak ikasi

- Ganzabal Mendi Taldea eta Alex Txikon
- 8 urte baino gehiago duen edozein pertsonarentzat
- Ordua: 09:30
- Izena eman eta informazio gehiago: 946312551 / euskara@lemoa.net

## OHARRAK

- “Berbalagun” euskara praktikatzeko taldea.

Interesaturik bazabiltza anima zaitetz, deitu 946313005 telefono zenbakira (martitzenetik eguenera), edo bidali mezu bat helbide honetara euskara@lemoa.net. Informazio gehiago gure web orrialdean.

- **LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK:** Lehen hiztegia - Pierre Brignaud (0-4 urte), Musuen gustua - Xabier Mendiguren (8-12 urte), ¡Agárrate fuerte! Hannah Montana - Laurie McElroy (12 urtetik aurrera), La caída de los gigantes - Ken Follett.
- **KZ Guneko tutorea** Lemoan:
  - Azaroak 3, eguaztena: 16:30 - 19:30
  - Azaroak 17, eguaztena: 16:30 - 19:30
- **Ganzabal Mendi Taldeak** antolatutako ekintzen inguruko informazioa: Lemoako eskoletan - Jubilatuen Etxeko 1. solairuan eguaztenetan 20:00etatik 22:00etara edo 675701359 / 946314597 telefono zenbakietan.
- **Igorreko Kultur Etxeko zine egitaraua** liburutegian kontsultatu daiteke.